

LEIHO IREKIAK ARTERANTZ PROGRAMA



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava





▶ www.araba.eus

Teatro
 PARAIISO
Antzerkia

ANTZERKIA ESKOLARA HELTZEN DA KANPAINA

JARDUEREN PROGRAMA LEIHO IREKIAK ARTERANTZ PROGRAMA

“LEIHO IREKIAK ARTERANTZ” programa elkarlotuta dauden lau jardueren segidabaten gisara dago sortua. Jarduera horiek lanegun ezberdinetan burutzen dira, eta honako sekuentzia osatzen dute.

PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAREN LABURPENA		
	LEIHOAK ERAIKITZEN	<i>Lantegi esperimentalak irakasleekin</i>
	LEIHOTIK BEGIRATZEN	<i>Ikusle sortzaile bilakatzeko ekintzak</i>
	LEIHOAK IKUSKIZUNATIK BIDAIAK	<i>Dantza, antzerki eta irudiak ikuskizuna</i>
	OIHARTZUNAK LEIHOETATIK	<i>Oihartzun artistikoak ikasgelan</i>



LEIHOAK ERAIKITZEN

Lantegi esperimentalak irakasleekin

*Umeeek ikusiko duten **Leihoak** ikuskizuna antzerkiarekin, dantzarekin, irudiekin eta musikarekin egindako jolas bat da, bizitzako lehen urteetako irudien eraikuntza eta deseraikuntza gogorarazten duen istorio iradokitzaile bat sortzen duena, imajinario magiko eta fantastiko bat birsortuz. Programa irakasleekin egingo den tailer praktikoarekin hastea proposatzen dugu, irudien eta Haur Hezkuntzan eskaintzen dituzten aukera hezigarri eta artistikoen inguruan.*

Irudiz beteta dagoen munduan, zein da horien lekua heziketa-proiektuan? Irudiak mundua esploratzeko eta marrazteko tresnak dira? Zer-nolako aukera hezigarri eskaintzen dizkigu irudi-jolasak?

Irakasleak obrara hurbiltzea da gure helburua eta leiho baten bidez ikasteko eta hunkitzeko leku batera bidaiatzea.


Azkenik, ikasgeletan esperientzia artistiko baten sorkuntza eta martxan jartzeari ekingo diogu, irudiak jolas eta esplorazio gaitzat hartuta.

Esperientzia artistiko hori Teatro Paraiso Antzerkiak garatutako “LEIHOAK” ikuskizunaren inguruan egingo da. Modu horretan, kontenplazio artistikoa hasi aurretik, burutzen den bitartean, eta amaitu ondoren gertatzen dena jasotzen duen ekintza-segida marraztuko da.

dugu, eta ikastetxe bakoitzean irakasleek sortutakoarekin pertsonalizatuko da. Horrez gain, proposatu diren ekintzak burutzeko beharrezkoak diren material didaktikoak emango dizkizuegu.



Irudiak ipuinak kontatzeko inspiraziotzat eta baliabidetzat.



Irudiak esploratu eta sortu gelan jolasa sustatzeko modutzat.



Irudiak Artearekin topo egiteko leihotzat.



LEIHOTIK BEGIRATZEN

Sormenezko ikusle bilakatzeko ekintzak

1. IKASGELAN IKERTZEN. Antzokira joan aurreko jarduerak.


Hasi aurretik.

1. Saiatu gelan ahalik espazio libre gehien uzten behar ez ditugunak kenduz, erraz mugitu ahal izateko.
2. Aukeratu ikasgelako leiho bat (irisgarriena), eta apaindu markoa, besteetatik bereizteko. Horretarako, koloretako zinta itsasgarria erabil dezakezu, gero arazorik gabe kendu ahalko baituzu.
3. Teatro Paraiso konpainiak marko txuri txiki bat bidaliko dizu, eta horixe izango da, hain zuzen, unitate honi hasiera ematen lagunduko dizun gailua.

Girotzeko ariketa. Leiho magiko bat dago ikasgelan!!! (10min.)

Eseri guztiok biribilean, isilik. Hartu markoa, eta begiratu ezazu handik. Mugi ezazu, eta begiratu hainbat angelutatik. Behetik gora, alde batetik, bestetik... ikusten ari zarena gustuko bazenu bezala, dibertituko bazina bezala, izutuko bazintu bezala, interesgarria balitz bezala.

Ziur asko, zure ikasleek zer egiten ari zaren edota zer ikusten ari zaren galdetuko dizute harrিতuta. Esan iezaiezu leiho bat dela, eta eman iezaiozu markoa handik begiratu nahi duenari. Jada hasi zarete gaia lantzen. Orain, hasi galderak egiten. Badakizue non dauden leiho gehien? Zuen logelak badu leihorik? Etxean zaudetenean, begiratzen duzue leihotik? Eta etxean gelditzen garenean? Hotz egiten duenean, edo euri asko egiten duenean, gaixorik gaudenean? Gogoratzen al zarete etxean geratu behar izan zenuten azken aldiaz?




Galderak direla eta, baliteke konfinamenduaren gaia irtetea. Aprobetxatu guztien artean komentatzeko, egokia dela baderitzozu. Edota esan diezaiekezu jende askok ezin duela etxetik irten, ibili ezin dutelako, beldurra ematen dielako... eta leihotik begiratzeak lagundu diezaiekeela.



Ikasgelan ere badaude leihoak, baina horietako bat berezia da. Gerturatu leiho horretara, eta begiratu zer duen berezia. Esan iezaiezu leiho magikoa dela. Leiho horretatik ikusten dena errealitate bihurtu daiteke ikasgelan bertan. Sinetsi dute? Proposatzen dizkizuegun dinamikekin ikusiko dute.

1.1 dinamika. Begiratu leihotik... euria ari du!! (25min.)



Jarri denok leihoaren aurrean, eta begiratu handik. Ai... gaur ikasgelan gelditu behar dugu, euria ari du eta! Azaldu ikusten ari zarena. (Irudimenezko ariketa bat da)

Kristala bustitzen ari diren tanta txikiak ikusten ditut...

Aterkia irekita duela paseatzen ari den neska bat

ikusten dut...

Jolastokian putzuak ikusten ditut...

Zer ikusten duzue zuek?

Esan bezala, leiho magikoa da, eta handik ikusten den edozer gauza errealitate bihurtu daiteke ikasgelan; leihoa aktibatu besterik ez da egin behar.

Banatu orri bat ikasle bakoitzari, eta esaiezu ur tanta bat marrazteko eta ebakitzeko¹. Lagundu iezaiezu beren ur tanta leihoan itsasten zeloarekin. Denak itsatsita daudenean, eska iezaiezu leihotik begiratzeko, eta bitartean, bilatu ordenagailuan proposatu dizugun audio-pista. Jarri martxan... eta euria ikasgelan sartuko da.

<https://www.freemusicprojects.com/es/43-sonidos-de-naturaleza>

Audio-pista: euria 1. zk.,
euria 2. zk., ekaitza 1. zk.,
ekaitza 2. zk.².

Gonbidatu ikasleak
mugitzera, honako
jarraibide hauen bidez.

1. Euria eskuetan sentitu nahi bagenu bezala, besoak luzatuko ditugu esku-ahurrak gora begira ditugula. Burua altxatzen badugu, tantak aurpegian ere nabarituko ditugu beharbada.
2. Gero eta euri gehiago ari duela dirudi... Aterkia irekiko dugu, eta binaka ibiliko gara.
3. Euriarekin jolasteko ordua da. Salto egingo dugu putzuetan!
4. Jolasten jarraituko dugu. Elkar ziprirtinduko dugu.



1.2 dinamika. *Begiratu leihotik... hau da hau haizea!!* (25min.)

Jarri denok leihoaren aurrean, eta begiratu kanpora. Ai... gaur ikasgelan gelditu behar dugu, haize izugarria dabil eta! Azaldu ikusten ari zarena. (Irudimenezko ariketa bat da)

Zuhaitzetako hostoak hegan ikusten ditut.

Zuhaitzak makurtzen ikusten ditut.

Pertsona batek kometa bat darabil ziztu bizian!!

Zer ikusten duzue zuek?

¹ Errazagoa egin nahi baduzu, ur tanta baten marrazkiak dituzten fotokopiak izan ditzakezu, ebaki ditzaten. Edota soilik margotu egin ditzakete. Zuk dakizu une horretan zein den zure ikasleentzako ariketa egokiena.

² Nahiago baduzu, une honetan eskuekin egin dezakezue doinua.
<https://www.youtube.com/watch?v=O6VwXI8IHHU>.

Esan bezala, leiho magikoa da, eta handik ikusten den edozer gauza errealitate bihurtu daiteke ikasgelan; leihoa aktibatu besterik ez da egin behar.

Banatu orri bat ikasle bakoitzari, eta esaiezu zuhaitzetako hosto bat marrazteko eta ebakitzeko. Lagundu iezaezu beren hostoa leihoan zeloarekin itsasten. Denak itsatsita daudenean, eska iezaezu leihotik begiratzeko, eta bitartean, bilatu ordenagailuan proposatu dizugun audio-pista. Jarri martxan... eta haizea ikasgelan sartuko da!

<https://www.freemusicprojects.com/es/43-sonidos-de-naturaleza>

Audio-pista: haizea 1. zk., haizea 2. zk.

Gonbidatu ikasleak mugitzera, honako jarraibide hauek emanez.

1. *Haizea leuna da, eta alde batetik bestera kulunkatzen gaitu, geure lekutik mugitu gabe.*
2. *Haizea takarra da orain, eta zurrumbilo txiki bat egiten du. Bata bestearen atzetik mugituko zarete, biribil bat marraztuz.*
3. *Haizeak gogor jotzen du, eta gero eta azkarrago mugitzen zaituzte!*
4. *Urakana dugu... zerbaiti heldu behar diogu!!!*



3 dinamika. *Begiratu leihotik... gaua da dagoeneko!* (25min.)

Jarri denok leihoaren aurrean, eta begiratu kanpora. Ai... gaur ikasgelan gelditu behar dugu, gaua baita dagoeneko! Azaldu ikusten ari zarena. (Irudimenezko ariketa bat da).

Zerua urdin ilun-iluna dago, eta izarrek distira egiten dute.

Argia dago etxeetako leihoetan, eta lauki hori txikiak dirudite.

Katu bat errepidea gurutzatzen ari da!

Zer ikusten duzue zuek?

Esan bezala, leiho magikoa da, eta handik ikusten den edozer gauza errealitate bihurtu daiteke ikasgelan; leihoa aktibatu besterik ez da egin behar.

Banatu orri bat ikasle bakoitzari, eta esaiezu izar bat marrazteko eta ebakitzeko. Lagundu iezaiezu beren izarra leihoan zeloarekin itsasten. Denak itsatsita daudenean, eska iezaiezu leihotik begiratzeko, eta bitartean, bilatu ordenagailuan proposatu dizugun audio-pista. Jarri martxan... eta gaua sartuko da ikasgelan!

<https://www.freemusicprojects.com/es/43-sonidos-de-naturaleza>

Audio-pista: basoa 1. zk

Gonbidatu ikasleak mugitzera, honako jarraibide hauek emanaz.

1. Begiak itxiko ditugu, eta audioa entzungo dugu mugitu gabe.
2. Begiak itxita, poliki-poliki mugituko gara, ikaskide bat aurkitzeko.
3. Binaka, bata, begiak irekita dituenak, bikotekidea gidatuko du ikasgelan zehar, begiak itxita izango baititu.
4. Lotarako ordua da... Lurrean etzango gara, eta erlaxatu egingo gara.



1.4 dinamika. *Begiratu leihotik...gulu..., gulu..., gulu...!!!* (25min.)

Jarri denok leihoaren aurrean, eta begiratu kanpora. *Ai... gaur ikasgelan gelditu behar dugu, itsasoaren azpian baikaude!!* Azaldu ikusten ari zarena. (Irudimenezko ariketa bat da)

Algak eta koloretako arrain ugari ikusten ditut hondotan.

Karramarro bat poliki-poliki ari da mugitzen, eta harkaitz baten zuloan sartu da.

Sirena bat da hor aurrean dagoena?

Zer ikusten duzue zuek?

Esan bezala, leiho magikoa da, eta handik ikusten den edozer gauza errealitate bihurtu daiteke ikasgelan; leihoa aktibatu besterik ez da egin behar.

Banatu orri bat ikasle bakoitzari, eta esaiezu arrain bat marrazteko eta ebakitzeko. Lagundu iezaiezu beren arraina leihoan zeloarekin itsasten. Denak itsatsita daudenean, eska iezaiezu leihotik begiratzeko, eta bitartean, bilatu ordenagailuan proposatu dizugun audio-pista. Jarri martxan... eta itsas hondotan egongo gara!

<https://www.freemusicprojects.com/es/43-sonidos-de-naturaleza>

Audio-pista: itsasoa 1. zk., itsasoa 2. zk

Gonbidatu ikasleak mugitzera, honako jarraibide hauek emanaz:

1. Urpean igeri egingo dugu, elkarrekin talka egin gabe.
2. Gure eskuak arrain txiki bihurtu dira; batzuetan, azkar mugitzen dira, eta beste batzuetan, berriz, poliki.
3. Gutako batzuk marrazo bihurtu dira... Ihes egin behar dugu!!



1.5 dinamika. Antzokiko leihotik begiratzeko prestatzen ari gara

Ba al dakizue gure ikasgela ez dela leiho magiko bat duen leku bakarra? Antzerkian ere badago! Hotz handia egiten duelako kalera irten ezin den emakume baten etxeko leihoa da. Baina gu bezala, gauza pila bat imajinatzeko gai da bere leihotik begiratzeko. Zuek ere begiratzera joan nahi duzue?

Norbaitek Antzokiko leihotik begiratzeko utz diezagun, sarrera bat behar dugu, eta, hori lortzeko, gelako haur guztien argazki bat eraman beharko dugu, leiho batetik begira, gelatik, ikastetxetik, beste espazio batetik...






LEIHOAK IKUSKIZUNATIK BIDAIAK

Dantza, antzerki eta irudiak ikuskizuna.

Espero dugu ikasgelan egin dituzuen dinamikek ikasleengan jakin-mina piztea antzerkira joateko. Haiek ikasgelan egin duten bezala, aktore eta dantzari bat leiho baten atzean begira ikusiko dituzte, eta, aldi berean, paisaia amaigabeak eta ederrak sortuko dituzte.

Haizea txistuka eta hotz asko egiten du. Gaua itxia da. Albisteetan hotz-bolada, elurra eta euria iragarri dute. Ezin da etxetik atera.

Emakumea aspertuta eta nahigabetuta dago. Bere kafe kikara berotzen duen bitartean bere baitan bilduta geratu da leihotik begira. Sorgortuta, leihoko ganduaren gainean marrazten hasi da bere hatz adierazlearekin. Leihoak kolorea aldatu du. Gaueko itzal urdinen artean leunki dantza egiten duen neskato baten soslaia sortzen da. Haizeak gogorrigo egiten du txistu eta haizezko instrumentuen sinfonia ezti bilakatu da. Arrain eta karramarroen unibertso ederra, anemona eta landare bitxien baso batez inguratuak. Espazioa itsas kosmos eraldatu da. Itsas landare mundua zabaltzen da gure aurrean, ilargiaren argipean dantzatzen duten beso loratuen antzera.



Jolasaren bidez, bizitzako lehendabiziko urteetako irudien eraikuntza eta deseraikuntza gogora dakarren bidaiaren murgilduko dira ikus-entzuleak, imajinario magiko eta fantasiakoa birsortuz. Itzaletatik argira, abstraktutik irudizkora, hainbat irudik adiskidetasunean bizitzearen esperientzia liluragarrian murgilaraziko gaituen jolas bat sortuko dute.

Ikuskizunaren dramaturgiak ere irakurketa bat izango du publiko helduarentzat. Bertan emakume batek abentura ezinbestekoa biziko du, galdutako jakin-mina berreskuratzea ekarriko diona. Horrela, berrikasi eta berriro hunkitzeko leku batera bidaiatuko du, artean neskato baten moduan jolasten zuen garai batera, eta bere haurtzaroaren lurraldean barneratuko da eta leihotik batean barna bidaiatuko duen, jolasean eta mundua deskubritzeko ametsetan zen neskato bat bizi zen garai eta leku batera.





OIHARTZUNAK LEIHOETATIK

Oihartzun artistikoak ikasgelan

Zer-nolakoa izan da antzokiko bisita? Beharbada, Leihoak ikuskizunak argien, itzalen eta irudi aldakorren bidez mundu fantastiko bat sortzeko mila modu erakutsi dizkizue. Antzokira joan aurreko dinamiketan, zuek ere gai izan zineten zuen irudimen hutsarekin zuen ikasgelako espazioa eraldatzeko.

Baina, **Leihoak** ikuskizunean bezala, badira esperientzia paregabeak bizitzeko beste mundu bat sortzen lagundu diezaguketen tresnak. Ondoren proposatzen dizkizuegun dinamiketan, formekin, argiekin eta itzalekin esperimentatzera gonbidatzen zaituztegu. Ongi etorri efektu berezien mundura!

3.1 dinamika. 1000 ostadar ikasgelan (15min.)

Eguzkia eta euria batera gertatzen direnean zeruan agertzen den kolore anitzeko fenomeno bat da ostadarra, arku formakoa. Baina guk ikasgelan egin dezakegun argi-jolas baten emaitza ere izan daiteke. Oso erraza da.

Ikastetxean ez baduzue, eskatu ikasleei linterna txiki bat eta CD zahar bat ekartzeko, gurasoek jada erabiltzen ez duten horietako bat. Jaitsi pertsianak ikasgela guztiz ilunduta gelditu dadin, eta piztu linternak. Zuzendu argia CDra, eta bilatu isla horman. Mugitu poliki-poliki ostadarraren koloreak aurkitu arte, eta hor duzue!! 1.000 ostadar ikasgelan!



3.2 dinamika. Zeru mugagabea. (25min.)

Ohituta gaude eguzkia, ilargia, izarra eta hodeiak zeruan ikusten. Baina irudikatzen dugun guztia ere agerraraz dezakegu, tresna egokiekin.

Dinamika hau garatzeko, proiektore batzuk eraiki behar dituzue, linterna txikiak, komuneko paperezko hodiak, film-papera, gomak, kartoi mehea eta arkatz markatzaile iraunkorrak erabiliz. Zuen proiektoreak sortzeko modua aukera dezakezue.

1. Ezarri film-paper zati bat komuneko paper-hodiaren alde batean, eta lotu goma batekin. Papera ondo tenkatuta duzunean, marraztu arkatz



markatzaile iraunkorarekin zeruan agertzea nahi duzun edozer gauza. Saiatu forma errazak egiten, silueta garbi ikus dadin horman. Eguzkia, ilargiak, izarrak... baina baita suziriak, kometak eta abar ere... edota pertsonak hegan egiten ere bai!

2. Egin ezazu aurreko modalitateko eragiketa bera, baina arkatz markatzailearekin film-paperean zuzenean marraztu ordez, marraztu ezazu nahi duzun forma kartoi mehe batean, ebaki eta itsatsi kolarekin filmean. Proiektatutakoan irudia argiagoa dela ikusiko duzu.



Jada baduzue paisaia fantastikoa, ostadarrez eta elementu ugariz betetako zeruarekin. Aprobetxatu aukera, eta gonbidatu beste ikasgeletako ikaskideak ikustera. Animatzen badira, dinamika bera egin dezakezue ikastetxeko korridorean guztion artean beste une batean, eta ikastetxeko espazio osoa eralda dezakezue.



3.3 Gero beretik ...

Argiekin eta itzalekin espazioan esperimentatzen hasi zaretenez, agian esperimentatzen jarraitu nahi duzue. Hona hemen zenbait aukera linternekin eta beste elementu gutxi batzuekin ondo pasatzeko, ezin konta ahala baitaude.


1. Bost. Haurrentzako ipuina itzalen antzerkian




<https://www.youtube.com/watch?v=b85mvwqw7NM>


2. Itzalen jolasa, HerveTullet





<https://www.casadellibro.com/libro-juego-de-sombras/9780714865898/2210171>




3. Beste aukera batzuk:













agurein  salvatierra



AMURRIO
UDALA



AMURRIO
AYUNTAMIENTO

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO



Ayuntamiento
de Labastida



Bastidako
Udala



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

AYUNTAMIENTO
ALEGRIA-DULANTZI



ALEGRIA-DULANTZIKO
UDALA